

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

|   |   |             |     |
|---|---|-------------|-----|
| PRESTAKUNTZA-ATALA                                  | EKIPAMENDUEN ETA MAKINEN KUDEAKETARAKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA ETA GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA | Iraupena    | 50  |
|   |   | Espezifikoa |     |
| Kodea   | UF0381  |             |     |
| Lanbide-arloa                                       | NEKAZARITZA   |             |     |
| Lanbide-eremua                                      | Abeltzaintza  |             |     |
| Profesionaltasun-ziurtagiria                        | Zaldi-hazkuntza   | Maila       | 3   |
| Prestakuntza-modulua                                | Abeltzaintzako ustiategiaren instalazioak, makinak, materiala eta ekipamenduak kudeatzea.   | Iraupena    | 120 |
| Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak | Makinak, instalazioak eta ekipamenduak mantentzea eta konpontzea.                           | Iraupena    | 70  |

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0536\_3 ABELTZAINZAKO USTIATEGIKO INSTALAZIOAK, MAKINAK, MATERIALA ETA EKIPAMENDUAK KUDEATZEA gaitasun-ataleko LB1, LB2 eta LB4, LB5 eta LB6 lanbide-burutzapenekin

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Tailer baten instalazioa eta kudeaketa antolatzea, mantentze-premien eta konponketen arabera, laneko arriskuak prebenitzeko arauak betez.

- EI1.1 Tailerreko ekipamenduen hornidurarako eta funtzionamendurako eta konponketa- eta mantentze-lanak gauzatzeko beharrezko dokumentazio teknikoak zerrendatzea.
- EI1.2 Abeltzaintzako makinak eta ekipamenduen diagnosi- eta konponketa-teknika nagusiak deskribatzea.
- EI1.3 Oinarrizko matxuren diagnosirako eta konponketarako neurketa- eta proba-ekipamenduak zerrendatzea eta deskribatzea.
- EI1.4 Tailer batean egin beharrekotako soldadurako eta esku-mekanizazioko eragiketen ezaugarri nagusiak deskribatzea.
- EI1.5 Konponketa- eta mantentze-lanetarako prozedurak, metodoak eta gutxi gorabeherako denborak deskribatzea.
- EI1.6 Abeltzaintzako enpresaren eta makinak konponketarako eta mantentzeko tailerreko ekipamenduak deskribatzea.
- EI1.7 Tailerreko eragiketak egiteko beharrezko inplementuak, ordezeko piezak eta materialak eta horiek biltegitzeko baldintzak deskribatzea.
- EI1.8 Ekipamenduen, ordezeko piezen eta materialen kokapen egokirako tailer baten zona eta gune nagusiak zehaztea.
- EI1.9 Tailerreko hondakinak biltegitzeko eta ezabatze sistemak deskribatzea, ingurumena errespetatzen dutenak.
- EI1.10 Tailerreko makinak, lanabesen, ordezeko piezen eta askotariko materialaren erosteta balioestea eta kudeatzea, mantentze-premien eta konponketen arabera.
- EI1.11 Tailerrean laneko arriskuak prebenitzeko arauak betetzeko lan-baldintzak eta langileen babes-baldintzak deskribatzea.
- EI1.12 Behar bezala zehaztutako makina-parke baten konponketarako eta mantentzeko tailer baten kasu praktikotako batean:
  - Txosten tekniko bat egitea, tailer espezializatu batean konpondu beharrekotako matxurak eta oinarrizko konponketen bitartez tailerrean konpon daitezkeenak identifikatzeko beharrezko informazioarekin.
  - Makinak konpontzeko eta mantentzeko behar diren ekipamenduak eta materialak zerrendatzea.
  - Tailer bateko zonak eta ekipamenduen kokapena banatzea, ordezeko piezen eta materialen biltegitzea barnean hartuta.
  - Konponketa-aginduak, lan-partearak, diagnosi-etaulak eta tailerreko lana behar bezala antolatzeko behar den dokumentazio teknikoak diseinatzea.
  - Lan-prozedurak eta -arauak finkatzea, segurtasun- eta higiene-eskakizunak betetzen direla egiaztatuz.
  - Tailerreko lana banatzea.
  - Tailerreko lanaren kalitatea kontrolatzea eta egiaztatzea.
  - Konponketa ohikoenen kostuak zehaztea.

A2: Abeltzaintzako enpresa bateko makinak, ekipamenduak eta instalazioak erosteko, berritzeko edo botatzeko txosten teknikoak lantzea, horien errentagarritasunaren eta produkzio-planaren arabera.

- EI2.1 Abeltzaintzako enpresa batean behar diren ekipamenduak eta makinak deskribatzea, produkzio-planaren arabera.
- EI2.2 Ekipamenduen dimentsioak eta ezaugarri teknikoak aztertzea, honako hauek kontuan hartuta:
  - Produkzio-planeari aurreikusitako eragiketak gauzatzeko behar diren lan-gaitasunak.
  - Gunearen ezaugarriak, mekanizazio-aukeretan eragiten dutenak.
  - Ordu-kostuak eta produkzio-unitate bakoitzeko kostuak erosteko, alokairuko edo jabetza partekatuko aukeren arabera.
- EI2.3 Erosi beharrekotako ekipamenduen eta makinei buruzko dokumentazio teknikoak eta merkataritza-dokumentazioa aztertzea.
- EI2.4 Makinak eta ekipamenduak une egokian erosteko, berritzeko edo botatzeko irizpide teknikoak eta ekonomikoak deskribatzea.

EI2.5 Jada badauden ekipamenduen, lanabesen eta instalazioen produkzio-planarekiko egokitzapena aztertzea, erabilera-mailaren eta errentagarritasunaren arabera.

EI2.6 Behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean: abeltzaintzako makina-parke baten hobekuntzak zerrendatzea enpresara hobeto egokitzeko:

- Beharrezko ekipamenduak, lanabesak, makinak eta instalazioak identifikatzea.
- Traktoreen eta trakzio-elementuen premiak definitzea.
- Horien dimentsioak eta ezaugarri tekniko egokiak zehazki deskribatzea.

EI2.7 Behar bezala zehaztutako produkzio-plan bat duen enpresa baten kasu praktiko batean:

- Alokatzeta, partekatzea edo eskusiban edukitzea komeni diren ekipamenduak ezartzea.
- Produkzio-planaren arabera, erosteko unerik egokiena programatzea.
- Ekipamenduak erosteko merkataritza-eskaintzak balioestea.
- Makinen parkea erabiltzeko, berritzeko edo erosteko hobekuntzak proposatzea.
- Abeltzaintzako enpresa batean ekipamenduak eta instalazioen erosteko baldintza-orriak aurkeztea.

A3: Abeltzaintzako ustiategiko instalazioak, makinak, materiala eta ekipamenduak mantentzeko eta erabiltzeko beharrezko giza baliabideak koordinatzea eta kontrolatzea, errendimendu egokiak bermatze aldera, ezarritako helburuen eta jardueren arabera.

EI3.1 Behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean edo simulazio batean: larrialdietarako erantzuna koordinatzea, larritasuna balioetsiz, lanak geldituz, gertakizunaren berri emanez, eta dagokion plana aplikatuz.

EI3.2 Lanean zehar gerta daitezkeen arazoak edo gatazkak identifikatzea, eta izan daitezkeen konponbideak zehaztea.

EI3.3 Egindako jardueren errendimenduen eta kostuen kontrol-prozedura desberdinak deskribatzea.

EI3.4 Behar bezala zehaztutako giza baliabideen antolakuntzako kasu praktikoetan:

- Egin beharreko lanen banaketa ezarritako helburuak eta funtzionamendu-jarraiabideak betetzeko moduan ezartzea.
- Langile bakoitzarentzako zereginak eta erantzukizunak banatzea eta esleitzea, ezarritako helburuak betetze aldera.
- Taldeko langileei aholkularitza teknikoa ematea bete beharreko lanpostuarekin zerikusia duten alderdietan.
- Txostenak eta lan-partearak egitea, ordutegi-kontrola, errendimendua eta kostuak ere barnean hartuta, egindako jardueren emaitzak ebaluatzeko.
- Lanen, langileen eta produkzio-baliabideen inguruan sortutako arazoak identifikatzea eta konponbideak aurkitzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea.

## Edukiak

### 1. Oinarrizko eta lehen mailako erabileraren eta mantentzearen kudeaketa. Abeltzaintzako ustiategiaren makinak, materiala eta ekipamenduak.

- o Makina-, material- eta ekipamendu-premia espezifikoak.
- o Motak, osagaiak, oinarrizko erregulazioa eta laneko erregulazioa.
- o Egokitzapenak.
- o Makinen, materialaren eta ekipamenduen erabilera arduratsua.
- o Arriskuak.
- o Istripuen eta kalteen prebentzioa makinan, materialaren eta ekipamenduen erabileran.
- o Lehen laguntzak eta larrialdiak.
- o Makinen, materialaren eta ekipamenduen babes-elementuak.
- o Langileen babes-elementuak.
- o Ingurumena babestea makinak, materiala eta ekipamenduak erabiltzerakoan.
- o Makinen, materialaren eta ekipamenduen oinarrizko eta lehen mailako konponketak.
- o Mantentze-lanetarako eskuliburuak.
- o Lubrifikatzaileak.
- o Erregaiak.
- o Beste material batzuk.

### 2. Instalazioen, ekipamenduen eta garraiobideen higiena.

- o Instalazioen higiena: garbiketa, desinfekzioa, intsektu-garbiketa eta arratoi-garbiketa.
- o Makinak, materiala eta ekipamenduak: osagaiak, erregulazioa, mantentzea.
- o Garbiketarako, desinfekziorako, intsektu-garbiketarako eta arratoi-garbiketarako produktuak.
- o Instalazioen, makinan, materialaren eta ekipamenduen garbiketan, desinfekzioan, intsektu-garbiketan eta arratoi-garbiketan erabilitako izaera kimikoko eta/edo biologikoko produktu zoosanitarioak.
- o Konposatuen ezaugarriak.
- o Osagai eraginkorrak.
- o Ondorioak ingurumenean.
- o Simaurra garbitzeko, biltegitratzeko eta balioztatzeko sistemak.
- o Azpiproduktuen kudeaketarako eta aprobetxamendurako instalazioak.
- o Azpiproduktuak balioztatzeko teknikak.
- o Abeltzaintzako azpiproduktuak desagerraraztea: desagerrarazteko sistemak, eta sortzen dituen ingurumen-arazoak.

- Hondakin organikoak, kimikoak eta biologikoak ezabatzeko instalazioak.
- Instalazioen, makinaren, materialaren eta ekipamenduen higiene-mantentzea.
- Azienda garraiatzeko ibilgailuak hartzea, garbitzea eta desinfektatzea.

### 3. Langileak gainbegiratzea eta antolatzea

- Langile-premiak.
- Lanen esleipena.
- Lana antolatzea.
- Langileen aholkularitza eta gainbegiratzea.

### 4. Lotutako araudia

- Abeltzaintzako instalazioen eraikuntzei buruzko arauak.
- Produktu zoosanitarioen aplikazioari eta/edo erabilerari buruzko arauak.
- Ingurumen-premiei buruzko arauak.

## C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Zaldi-hazkuntza